

XENPELARREN FRUITUAK

Julian Albistur Aranburu

Oarso aldizkari honetan, 2002az geroztik nire lan xume guztiak euskaraz idatzi ditudan arren, gehien-goak bertsoaritzari buruzkoak, aurtengo hau salbuespena izango da. Ez gaiaren aldetik, elebakarretik erdi-elebidun (erdia gaztelaniaz eta beste erdia euskaraz) izatera jauzi egiteagatik baizik. Dibulgazioaz aparte beste helbururik gabe, inork eskatu gabeko lana baita. "Xenpelarren fruituak" inauguratu den urte honetan, nire ustez, merezi du.

Xenpelarri buruz idazteko, bertsolaria izan zenez eta gaiari dagokionez, egokiena euskara erabiltzea izango litzateke. Xenpelar euskaldunen artean mirestua bezain maitatua izan da, eta gaur egun ere horrela da, bereziki bertsolari eta bertsozaleon artean. Hizkuntzari dagokionez, gaurko errealitatea, Xenpelarren garaikoarekin alderatuz gero, oso desberdina da, eta, herritar orok irakurtzeko aukera izan dezan, ezjakintasun handia sumatu dudalako bere bizitzari buruz, gaztelaniaz ere idaztea erabaki dut. Horrela, euskara menperatzen ez dutenek ere, bertsolari handiaren bizitzaz jabetuz, hura miresteko aukera izan dezaten; gaztelaniaz informazio gutxi baitago Xenpelarri buruz.

Artikulu osoa bi hizkuntzetan idatzi ondoren, Erredakzio Batzordeak ezarritako irizpideek behartuta, hautatu egin behar izan dut, ez baitzegoen dena bikoiztuta argitaratzerik. Ulertzekoa da, luzapen alde-tik mugak jartzea, baina, pertsonalki gogor samarra egin zait. Azkenean, bi zatitan banatzea erabaki dut: Xenpelarren bizitza eta mendeurreneko ekitaldiak, gaztelaniaz; tartekatutako bertsoak eta eskulturrari buruzko informazioa, neuk bizi izan

dudana, euskaraz. Nire borondate onenarekin egindako nahaste-borraste honekin ez dakit asmatu dudana. Xenpelarri zornona kitatu nahian, bertsozaleok ulertuko duzuelakoan nago.

LA VIDA DE XENPELAR

Juan Francisco Petriarena Berrondo, "Xenpelar", nació en el término municipal de Erreterria, en el caserío Senperelarre (también denominado Senpelarre y Xenpelarre), el 12 de enero de 1835, alejado del casco urbano en un paraje colindante con el término municipal de Oiartzun, no muy lejos de Txikiardi. Le bautizaron al día siguiente, día 13, en la iglesia de Oiartzun. Ocurrió durante la Primera Guerra Carlista (1833-1839).

En 1814, Juan Cruz Petriarena (Sunbilla, Nafarroa), abuelo de Xenpelar, compró el terreno denominado Senperelarre al Ayuntamiento de Erreterria.

José Bernardo Petriarena Bergara, padre de Xenpelar, natural de Arantza (Nafarroa) vivió en el caserío Errotazar de Oiartzun y se casó, en primeras nupcias, con Josefa Ignacia Irigorri, natural de Oiartzun; tuvieron 3 hijos: Juan José, José Saturnino (1815) y Juan Cruz (1816).

En febrero de 1820, José Bernardo solicitó licencia al Ayuntamiento de Erreterria para construir una casa ("casuca") para poder habitar en ella con su familia.

Al morir su esposa, José Bernardo se casó con María Rita Berrondo y tuvieron 6 hijos: Josefa

Gregoria (1829), José Manuel (1832), María Luisa (1833), Juan Francisco (1835), Catalina Josefa (1838) e Ignacio María (1842).

Juan Francisco "Xenpelar", cuarto entre los seis hermanos nacidos de María Rita Berrondo, desde niño se dedicó a labores del caserío familiar y a los 7 años fue a trabajar como criado al caserío Egurrola, propiedad de sus tíos. No se sabe si acudió a la escuela; se cree que sabía leer pero no escribir.

En diciembre de 1859, se casó con la oiartzuarra María Josefa Retegi y vivieron en el casco urbano de Errenteria, en el edificio conocido ahora como "Casa Xenpelar" en la calle Magdalena. Actualmente dicho edificio se utiliza como sala de exposiciones, sala de reuniones y biblioteca infantil. Ahí nacieron sus tres hijas: Juana Josefa (1860), María Luisa (1863) y Juana Manuela (1866). Trabajó como tejedor en la Fábrica de Tejidos de Lino, hasta su fallecimiento,

que se produjo en la misma casa el 8 de diciembre de 1869 a la temprana edad de 34 años, víctima de un brote de viruela que azotó al municipio.

Mes y medio antes, el 25 de octubre murió su esposa María Josefa. María Luisa, hermana de Xenpelar, que estaba embarazada, acudió a ayudar a su hermano asumiendo el gran riesgo de contagio y dejando a su marido en casa al cargo de su hija de 4 años, Josefa Antonia, conocida como "Joxepa Anttoni", que luego fue bertsolari.

María Luisa dio a luz a Daniela el 8 de diciembre, el mismo día y en la misma casa que murió su hermano Xenpelar. El día 17 murió Daniela, la niña nacida 9 días antes y su madre María Luisa al día siguiente, el 18 de diciembre. Todos por la viruela, porque no había vacuna; eran otros tiempos. Un auténtico drama familiar. Las 3 hijas de Xenpelar, que convivían en la misma casa, sobrevivieron milagrosamente.



Senperelarre baserria, Xenpelarren jaiotetxea.



1931ko uztailaren 24an jarritako harrizko plaka.



1981-12-8az geroztik Xenpelar Kultur Etxea.



Egungo Xenpelar Kultur Etxea. 1869an Xenpelar hemen hil zen.



Senperelarre eraberritua, egungo Xenpelar.



Egungo Xenpelar.



Mendizaleek 1969an jarria.

EL LEGADO DEL MAESTRO

La aportación de Xenpelar al bertsolarismo ha sido extraordinaria, tanto cualitativa como cuantitativamente, siendo sin duda alguna una de las figuras más sobresalientes de su época y considerado como uno de los bertsolaris más relevantes de la documentada historia del bertsolarismo desde finales del siglo XVIII hasta nuestros días.

Aunque parte de su obra se perdió para siempre, se conserva mucha documentación de su gran aportación a la cultura vasca. Destacó, sobre todo, en la faceta de los bertsos escritos o "bertsopaperak", con temática muy variada, elaborados con una gran riqueza lingüística del euskera utilizando brillantes rimas, componiendo bertsos de gran dificultad técnica y extraordinaria calidad, con un extenso repertorio de melodías de gran aceptación hoy en día.

Aunque tradicionalmente los bertsos se hayan transmitido entre generaciones por vía oral, porque mucha gente los aprendía de memoria

en una época en la que no existía el magnetofón, gracias a la ayuda de su hermana María Luisa que, como sabía escribir, transcribía los bertsos de Xenpelar permitiendo que se diera a conocer su obra. La imprenta Makazaga, de Errenteria publicó durante 1931 y 1932 muchos trabajos en forma de bertsopaperak, de bertsolaris conocidos, entre ellos Xenpelar, documentos impresos de gran aceptación que se vendían en la época. Más tarde, Antonio Zavala como investigador, escritor, editor y divulgador infatigable del bertsolarismo durante varias décadas, creó la colección Auspoa con innumerables libros dedicados a la vida y al arte de la improvisación oral de los bertsolaris.

Xenpelar fue un gran innovador del bertsolarismo de su época, aunque pueda parecer increíble que una persona sin formación académica alcanzase el grado de maestro en su especialidad. Su capacidad innata para la improvisación oral desde niño, el entorno favorable de la época desde el punto de vista bertsolarístico y la escuela de la vida hicieron el resto para que, casi siglo y medio después de su muerte sigamos recordando y admirando su figura.

En un bertso cantado por Xenpelar en la sidrería Txikierdi, de Oiartzun, cita a otros 8 bertsolaris de la zona, con los que se había juntado para cantar: Panderiya, Lexoti, Ibarre, Xorrola, Bordondo, Ardotx, Arotxa y Larraburu. Xenpelar,

demostrando su extraordinaria habilidad oral, dejó para la historia una inusual composición de gran dificultad técnica, por su métrica especial con 9 rimas, en un auténtico alarde de verdadero maestro.

Panderiya'ko onek
memoriya erne,
Lexotik jartzen digu
zenbait umore;
txarrik ezin bota du
Ibarrek nai'tare,
nik oiekin ezin det
luzitu batere;
Xorrola da trebe,
baita Bordondo're,
Ardotx pare gabe,
Arotxa kantore,
Larraburu jartzen det
gubernadore.

He aquí algunas de sus composiciones más conocidas, respetando la grafía original del euskera de la época:

BETROIARENA

Bertso berriyak jartzen
orain naiz abiyan,
predikatzer a nua
Euskal-erriyan;
betroi bat artu nuen
Ernanin ferriyan,
galantziya egingo
zuela agiyan;
tristura begiyan,
beti auleriyan,
ez aren premiyan
nere fameliyan;
Senpelarrek dakizki
Errenterriyan.

Oraindik gaztia da:
ogei ta sei urte;
ernari omen ditu
bost illabete;
nik eztiyot igertzen,
ala esan dute,
gezurra baldin bada
engañatu naute;
aragiya aparte,
ezurretan torpe,
zañak dauzki fuerte,
zeñek nai du merke?
zikiro baten truka
emango nuke.

Ostegun joan danian
amabost Ernaniñ
betroiaren tratua
genduen egiñ;
Inaziyo saltzalle,
erostuna Fermiñ,
emeretzi ezkutu
geniyon eragiñ;
sabelian du miñ,
iñork ase eziñ,
artuaru muziñ,
eztu nai ediziñ;
atzetik biar ditu
zazpi medeziñ.

Kara iguala du
aurrian ta atzian,
basurdia diruri
zutik jartzian;
konsuelo bat daukat
nere biotzian:
bizirikan gelditzen
bada Ilbeltzian,
ori umatzian,
esnia etxian,
gazta abatsian,
gazura arratsian;
belarrak gizenduko
du Maiatzian.

Informe txarrak dira
orrenzat auzotik:
espalda ateriya,
urgun besotik;
eztula ta antziya
ukullo-zozotik,
desterratuko nuke
nik nere bototik;
amarra lepotik,
grilluak orpotik,
makillaz ondotik
jotzen det gogotik;
etzaio ajolarik
ezerengatik.

Begi bat itxua du,
adar biyak motzak,
krisellua diruri
aren kokotzak;
ikaratutzen gaitu
eztularen otsak,
burlaka asi zaizka
elizatik ontzak;
sano dauzka ortzak,
agiña zorrotzak,
tristura biotzak,
dantzian dabill otzak;
eztiyo onik egin
leku arrotzak.

IYA GURIAK EGIN DU

Iya guriak egin du,
badegu zeñek agindu. (Bis)
Ez oraindik umildu,
alkarregana bildu.
Gerra nai duen guziya
berari kendu biziya.

Ez naiz ni gerraren zale
baizik pakearen alde. (Bis)
Zeñek nai duen galde,
berari tira, dale.
Bala bat sartu buruan,
aspertuko da orduan.

Gu gera iru probintzi
lengo legerik ez utzi. (Bis)
Oieri firme eutsi,
naiz anka bana autsi;
jaioko dira berriyak,
gu gera euskal erriyak.

XENPELAR ETA MUSARRO FABRIKA HANDIAN EGINDAKO SAIO HISTORIKOA

XENPELAR:
Aizak i, mutil mañontzi
nagusiari goraintzi,
ez al akiken or pipa artzia
etzela lizentzi?
Jeniyo txar oiek utzi,
bestela ezurrak autsi,
giza-legia nola bear dan
ezin erakutsi!

XENPELAR:
Ziri bat sartu dit neri,
orain bestia berari,
abilidade gutxi duela
ez esan inori;
azala dadukat lori,
mamirik ez duk agiri,
ezur igarra austen zaila duk,
bazekiat ori.

MUSARRO:
Nik badet giza-legia
Prantxiskuk baino hobia,
beste tatxarik etzait arkitzen:
arlote pobria;
nik jeniya noblia,
kortesi paregabia
neri ezurrak austeko nun dek
abilidadia?

MUSARRO:
Kunplitzik nere ordenak,
ez dik kalterik barrenak,
bestela parra egingo ditek
aditzen daudenak;
ik nundik dauzkak kemenak
menderatzeko gallenak?
ezur igarrak autsitzen dizkik
indarra duenak.

IPARRAGIRRE ABILLA DELA

Iparragirre abilla dela
askori diot aditzen,
eskola ona eta musika
ori oiekin serbitzen.
Ni ez nazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen,
komeriante moduan.
Debalde festa preparatzen det
gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika
bertsolaria gainera,
gu ere zerbait izango gera
orla ornitzen bagera.
Atoz gure kalera
baserritar legera
musika oiek utzita
Errenterian bizi naiz eta
egin zaidazu bisita.

ZEZENAK PASAYAN

XENPELAR'EK jarriyak

1

Pasayako erretik
dator notiziya
zezen bat izandala
jeniyoz biziya;
kantatutzero nua
bistan ikusiya,
konsolatzeko triste
dagoen guziya.

2

Santiago eguna,
Pasayan siñale
allegatu ez danak
egiñ beza galde;
asieran jendia
zezenaren alde,
azkenian etzian
arrimatu zale.

3

Gure Pasayako beti
sonatua dago,
errapiñ gabe ezta
urte bat igaro;
urrenguan jarriko
ditezte nago
barrera eztuago edo
zezen aundiyago.

4

Torillotik atera
zuten lendabizi,
bei zar bat giyariya,
bandera ta guzi;
arrapatzen zuena
purrakatzen asi
azkenian kanpora
plazatik igesi.

5

Torillotik baztarreko
barrera tartian
zezena pasa zaye
kolera batian;
plazatikan kanpora
zeudenak pakian
erdiyak purrakatu
ditu ankapan.

6

Iru komerziante
plazatik kanpua,
poxpolo ta barkillo,
labana tratuan;
pareta egon arren
amar oñ altuan
panparroi pasatu zan
putzura saltuan.

7

Oyek orrela eta
geiago ere bai,
lurrian ziraldoka
egiñ zuten lasai;
ezkonberriyak eta
zenbait dama galai
zezenaren mendian
etzuten jarri nai.

8

Plazatik itxasora
salta da igari,
adarrak besterikan
etzuen agiri;
bakerua begira
bere zezenari,
exeri ta jan ditu
iru libra ogi.

9

Torillotik asita
gazelura arte
bire kaxkarra dago
bastante aparte;
begiyak erne zeuzkan,
belarriyak tente,
esan nuen ote zan
lengo «Almirante».

EROSI ZAZU

BILINTX'en BERTSUAK

PEZETA BANA

ASTERO, ASTERO EROSIZAZU

BERTSOLARIYA

ACTOS DEL CENTENARIO

En 1969, a los 100 años de la muerte de Xenpelar se organizaron varios actos conmemorativos de su centenario, entre ellos la presentación de la obra del errenteriarra, académico de Euskaltzaindia y pintor, residente en Donostia y Oiartzun Antonio Valverde Ayalde (1915-1970), que es conocida como la "foto de Xenpelar", en realidad es un retrato al oiartzuarra Antonio Lekuona Matxio, que posó como modelo.

Por otra parte, el mismo año, para la urbanización de la Plaza de los Fueros a petición de Valverde, Jorge Oteiza realizó un boceto de la estatua en homenaje a Xenpelar. Sin embargo no se pudo ejecutar el proyecto de Oteiza porque el Ayuntamiento, aduciendo problemas técnicos, no aceptó su propuesta de estatua de 7 metros. Eran los últimos años de la dictadura franquista que tanto daño hizo al euskera y a nuestra cultura. El bertsolarismo sobrevivió casi milagrosamente. No era de extrañar, por tanto, que el proyecto de Oteiza, que si se hubiese ejecutado habría resultado una obra emblemática para Errenteria, lo rechazara el Ayuntamiento de la época.

A raíz de la negativa, Oteiza se enfadó muchísimo. Con el boceto, se fundieron en

bronce 8 pequeñas esculturas seriadas que fueron entregándose a los respectivos vencedores del Campeonato de Bertsolaris de Euskal Herria (*Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa*), hasta que se agotaron. Las cuatro últimas se las llevó Andoni Egaña a su casa. Todo esto lo cuenta José Luis Ansorena en la revista *Oarso* del año 2003, en homenaje a Jorge Oteiza, que había fallecido.

Ya habían transcurrido 41 años desde aquel intento. Nuestro gran Xenpelar, en nuestra opinión, estaba claramente marginado puesto que de los maestros improvisadores estudiados, era el que no tenía monumento. Desde Xenpelar Bertso Eskola (XBE), entendíamos que el agravio comparativo a Xenpelar era evidente e injustificado y requería una solución.

Éramos conscientes de que sería muy difícil realizar el proyecto de Oteiza, ya que había fallecido en 2003; además, no veíamos necesaria una obra gigante, teniendo en cuenta la grave crisis económica que estamos atravesando. Queríamos algo digno para Xenpelar, porque no podemos olvidar la historia y la cultura, sobre todo el bertsolarismo, algo tan nuestro. Por tanto, había llegado el momento de intentarlo de nuevo, para conseguir en la democracia lo que impidió la dictadura.

MENDEURRENEKO EKITALDIEN IRUDIAK



Xenpelar (Ayalde, 1969). EUA-AME.



Xenpelarren bozetoa (Jorge Oteiza, 1969). *Oarso* 2003.



Xenpelar kalearen plaka (1969-12-8an inauguratua). Julian Albistur.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO SARIA



Andoni Egañaren "Xenpelar" (honetako 4 irabazi zituen). Julian Albistur.

ESKULTURAREN ODISEA

Beste herrietan, euren bertsolari handiei jarritako eskulturak, bustoak, oroitarriak eta abar ikusita, Erreneriako hutsunea nabarmena zen, aipaturiko bertsolariek merezia zuten arren, Xenpelarrena falta baitzen. Kasu askotan, herri txikiak izanda ere, erakutsi zuten gure kulturarekiko sentsibilitatea. Xenpelar, handi hauen artean handienetakoa izan zen zalantzarik gabe eta diskriminatua zegoen. XXI. mendean ulertzea ere kostatzen zitzaien.

Xenpelar Bertso Eskola 1987an sortu zenez, gure helburua zen 2012an 25. urteurreneko ospakizunen baitan, Udalak Xenpelarri eskultura jartzea herriko leku egoki batean. Helburu horrekin, 2009ko abenduan ekin genion lanari, bi hilabete eta erdiz dedikazio osoko lanaldia eskainita, «Xenpelarri zor zaiona», 67 orrialdeko liburua idatzi genuen prozesuaren abiapuntu bezala.

Aukeratutako 14 bertsolari esanguratsu aztertu genituen kronologikoki sailkaturik, horietatik lehenengoa Fernando Amezketarra (1764-1823), Manuel Lasarte (1927-2012), artean bizi zena izan zelarik azkenekoa, geroago 2012ko otsailean hil baitzen. Hau da, 1936ko Gerra Zibilaren aurretik jaiotakoak denak, inprobisatzaile handi hauen artean Xenpelarrek protagonismo berezia izan zuen. Beraz, 200 urte baino gehiagoko bertsolaritza dokumentatuaren historia uztartzen da XVIII. mende bukaeratik hasi eta XXI. mende hasiera artekoa.

2010eko otsailaren erdi aldera, Erreneriako Udalean aurkeztu genuen gure lana. Gero etorri ziren, aurkezpenak, bilerak, joan-etorriak eta abar, Udaletxean gauzak mantso joaten baitira, burokrazia tarteko. Euskara zinegotziak interesa agertu

zuen hasieratik, Kulturakoak ez, ordea. Urtebete igaro ondoren, hain mantso zihola ikusita, 2011ko martxoan eta apirilean Udal alderdi politiko guztiengana jo genuen, gure asmoa azaltzeko. Harrera ona egin ziguten eta, guztion aldetik oniritzia jaso genuenez, erabakiorra izan zen. Ezohiko emaitza lortu genuen: alderdi guztien adostasuna. Jarraian, ordea, maiatzean Udal hauteskundeak izan ziren eta, ondorioz, Udal gobernua aldatu egin zen.

Berriz ere hasi ziren bilerak, joan-etorriak... baina aurrez irekitako ildotik jarraitzea izan zen, jakinda denon oniritzia genuela. Lehiaketa publikoa egitea erabaki zen.

Gauzak horrela, Udalak 2012ko uztailean Lehiaketa publikoa abian jarri zuen Xenpelarri obra bat eskaintzeko helburuarekin. 11 proposamen aurkeztu ziren euren maketekin eta, 6 pertsonen osatutako epaimahaiak 2012ko irailean jasotako lanak epaitu ondoren, saria bertan behera gelditu zen, desert eman baitzuen. Udalak erabakitako dotazio ekonomikoarekin eta eskultura 2012ko abenduan inaguratzeko asmoarekin, lur jota gelditu ginen.

Prozesua errepikatu eta 2. Lehiaketa publikoa martxan jartzea erabaki zen eta horrela egin zuen Udalak. 15 proposamen berri aurkeztu ziren euren maketekin eta epaimahaiak 2013ko irailean jasotako lanak epaitu ondoren, XENPELARREN FRUITUAK aukeratu zuen. Gotzon Huegun, lasartearra, Hernanin bizi den eskultorea suertatu zen irabazle.

Jarraian, Huegun egileak egindako obra irabazlearen 3 bertsio aurkezten dira: lehiaketa-rako maketa, benetako eskultura eta egurrezko kopia, maiatzaren hasieran Ereintzak antolatutako Eskulangintza azokan aurkeztua.



Lehiaketarako maketa. Errenteriako Udala.



Benetako eskultura. XBE.



Egurrezko kopia. Ikerne Zarate.

INAUGURAZIOA

XBERen asmoa 2013ko abenduaren 8an, Xenpelar hil zen 144. urteurrenean inauguratzea bazen ere, udalaren administrazio prozedura zorrotzak tarteko, kontratazio tramite burukratikoak barne, egilea obra egiten azaroan hasi zenez, ikusita ezin zela iritsi egun horretarako, data 2014ko urtarrilaren 12ra aldatu

zen, Xenpelar jaio zen egunaren 179. urtemugan. Eguraldia lagun, egun bikaina izan genuen arratsaldera arte, gero euria egin bazuen ere. Eguerdian, Foru Plaza jendez bete zen; ezin zitekeen izan beste modu batera, Xenpelarrek merezi baitzuen. Ekitaldia xumea bezain duina, arreta handiz prestatua, hunkigarria izan zen. Hurbildu zirenek gozatzeko aukera izan zuten egitarau aberatsarekin.

EGITARAUA

- Sarrera: Udal Txistulariak
- Ekitaldiaren aurkezpena: Mikel Lersundi / Itziar Etxegia
- Alkatearen agurra: Julen Mendoza
- Eskultura gauzatu ahal izateko egindako ibilbidea: Julian Albistur
- Eskulturari buruzko xehetasunak, egilearen eskutik: Gotzon Huegun
- Eskultura argitaratzea. Agurra: Udal Txistulariak eta dantzaria: Alain Maya
- Gizon onaren bentajak. Moldaketa: Aitor Mitxelena. Bertsoak: Aitor Albistur. Errenteria Musika Kultur Elkarteko Bandako musikariak eta Xenpelar Bertso Eskolako bertsolariak: Patxi Petrirena eta Kepa Isasi
- Xenpelar. Egilea: Jose Ignazio Ansorena. Koreografia: Jon Maya Sein. Udal Txistulariak, Ereintza Dantza Taldea eta Xenpelar Bertso Eskolako bertsolaria: Aitor Albistur
- Bertso-saioa: Andoni Egaña eta Xenpelar Bertso Eskolako Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" eta Haritz Casabal
- Beroiarena. Moldaketa: Aitor Mitxelena. Errenteria Musika Kultur Elkarteko Bandako musikariak
- Ekitaldiaren amaiera: Mikel Lersundi / Itziar Etxegia

AUKERATUTAKO BERTSOLARI HISTORIKOEN ZERRENDA

	BERTSOLARIA	IZEN-ABIZENAK	JAIO-HIL	JAIOTERRIA
1	FERNANDO AMEZKETARRA	Fernando Bengoetxea Altuna	1764-1823	Amezketeta
2	UDARREGI	Juan Jose Alkain Iruretagoiena	1829-1895	Aia
3	BILINTX	Indalezio Bizkarrondo Ureña	1831-1876	Donostia
4	XENPELAR	Juan Frantzisko Petriarena Berrondo	1835-1869	Errenteria
5	PELLO ERROTA	Pedro Jose Elizegi Maiz	1840-1919	Asteasu
6	PEDRO MARI OTAÑO	Pedro Maria Otaño Barriola	1857-1910	Zizurkil
7	TXIRRITA	Jose Manuel Lujanbio Retegi	1860-1936	Hernani
8	BALENDIN ENBEITA	Balendin Enbeita Goiria	1906-1986	Muxika
9	UZTAPIDE	Manuel Olaizola Urbietia	1909-1983	Zestoa
10	BASARRI	Iñaki Eizmendi Manterola	1913-1999	Errezil
11	MATTIN	Mattin Treku Inarge	1916-1981	Ahetze
12	XALBADOR	Fernando Aire Etxart	1920-1976	Urepel
13	LAZKAO TXIKI	Jose Migel Iztueta Kortajarena	1926-1993	Lazkao
14	LASARTE	Manuel Lasarte Arribillaga	1927-2012	Leitza

AUKERATUTAKO BERTSOLARI HISTORIKOEN MONUMENTUAK

2014an, Xenpelarrena jarri ondoren, osatua gelditu da



1

F. Amezketarra
(Amezketeta)



2

Udarregi
(Usurbil)



3

Bilintx
(Donostia)



4

Xenpelar
(Errenteria)



5

Pello Errota
(Asteasu)



6

P. M. Otaño
(Zizurkil)



7

Txirrita
(Ereñotzu)



8

B. Enbeita
(Bilbo)



9

Uztapide
(Zestoa)



10

Basarri
(Zarautz)



11

Mattin
(Ahetze)



12

Xalbador
(Urepel)



13

Lazkao Txiki
(Lazkao)



14

Lasarte
(Leitza)

INAUGURAZIO EGUNeko ARGAZKIAK

Xenpelar Bertso Eskola
Xenpelar Dokumentazio Zentroa



Alkatea bertsotan.



Gotzon Huegun, egilea.



Foru Plaza jendez beteta.



Ereintzako dantzariak, garaiko jantziekin.



Egaña, Casabal eta Oiartzabal bertsotan.



Amaieran, Betroiarena kantatzen.



Bertsolariak XBE-ko partaideekin.